

## NORAI ELKARTEA ETA BERRIO-OTXOA ETA ARTXANDAPE IKASTETXEAK, «BILBAO BALIOEN HIRIA SARIAK» EKIMENAREN LAUGARREN EDIZIOAREN SARIDUNAK

- Norai elkarte hezitzaile, humanizatzaile eta ekintzaileak saria jaso du «Etorkizuna musikatan» proiektuagatik. Ibaiondoko haur eta gazteen bizikidetzeta eta gizarteratzea sustatzen du, musikaren bitartez.
- «Bideotutorialak» da Berrio-Otxoa Ikastetxearen ekimen sariduna. Helburu du arrakala digitala txikitzea, norbanako guztiei lineako prestakuntza eskainiz eta teknologia hurbilduz.
- Artxandape Ikastolaren «Ohar Gaitezen» programa da Epaimahaiak hautatutako hirugarren proiektua. Erantzukidetasuna sustatzea bilatzen du, emakumeek eta gizonek zaintzaren ardura modu ekitatiboan partekatu dezaten.
- Beste urte batez, [Bilboko Balioen Agiriaren](#) balio bat edo batzuk sustatu eta/edo gauzatu dituzten ekimenak garatu dituzten edo garatzen ari diren lana saritu du Bilboko Udalak, eta aintzatespen publikoa egin die.

(Bilbon, 2022ko apirilaren 27an).- NORAI elkarte, Berrio-Otxoa ikastetxea eta Artxandape Ikastola izan dira «Bilbao Balioen Sariak» ekimenaren laugarren edizioan saria jaso duten entitateak. Sari horiekin, elkarbizitza hobea lortzen laguntzeko eta [Bilboko Balioen Agiria](#)ren balioetakoren bat sustatzen dutenen lana eta konpromisoa balioetsi eta publikoki aintzatesten du Bilboko Udalak.

Sariak gaur arratsaldean banatu dituzte, udaletxeko Arabiar Aretoan, **Juan Mari Aburto** Bilboko alkateak zuzendutako ekitaldian, non **Oihane Agirre** Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Saileko zinegotzia eta Udalbatzako beste ordezkari batzuk ere egon diren.

Aburto alkateak nabarmendu du proiektuetako bakoitza «desberdina eta bakarra» dela, baina «denek laguntzen» dutela «gizarte bidezkoago eta hobe baterantz aurrera egiten». Gainera, azpimarratu du badagoela zerbait non bat datozen aurtengo saridun guztiek: haur edo gazteak direla beren ekimenen protagonistak. «Pozgarria da ikustea elkarrekin lan egin duzuela, zuen inguruko bizimodua hobetzeko», esan du alkateak. «Zintzoki, harro egoteko modukoa da, gizarte osoarentzat hain aberasgarriak diren ekimen hauek haur eta gazteen ekimenez sortu izana», esan die alkateak sarituei.

### ARTXANDAPE IKASTOLA

Saritutako ekimen bat Artxandape Ikastolarena da. Bere izenburua da **Ohar gaitezen: kontzilioa eta erantzukidetasunerantz, genero-berdintasunetik abiatuta**. Horren barruan, ikastetxeko ikasleek zuzendutako **Eguzkimoreak** talde feministak prestakuntza-saioak eskaini ditu, genero-berdintasunaren alorreko aditu baten eskutik, **gizonen eta**

**emakumeen artean dauden berdintasun ezak identifikatu eta ikusarazteko beharrezko gaitasunak garatzeko.**

Prestakuntza horrek talde eragile bihurtzen ditu, bai eskuratutako ezagutzak hezkuntzako gainerako eragileei helarazteko, bai gainerako ikasleak informatu eta sentsibilizatzeko.

Epaimahaiak nabarmendu du proiektu horrek genero-berdintasunaren balioarekin duen «*konpromiso sendoa*». **Sariaren 3.300 euroei esker, proiektuak aurrera egin ahalko du, helburu bera duten ekintza gehiagorekin.**

## **BERRIO-OTXOA IKASTETXEA**

**Berrio-Otxoa Ikastetxeak** gatu du aurtengo beste ekimen sarituetako bat: ***Bideotutorialak***. Batxilergoko 1. mailako ikasleek IKT irakasgaien egindako lana da, non zenbait aplikazio, programa eta plataforma informatiko helburu sozialarekin erabiltzeari buruzko bideotutorialak egin dituzten.

**Ekimenaren helburua da arrakala digitala txikitzea, norbanako guztiei lineako prestakuntza eskainiz eta teknologia hurbilduz.**

Proiektua bi kolektiborentzako da. Batetik daude **gizarte-zaurgarritasun egoeran dauden, eta Cáritasen laguntza sozioedukatiboko proiektuetan parte hartzen duten familiak**. Familia horiek eskolarako eta lanerako komunikazio-plataformak ezagutu behar dituzte, seme-alabei eskola-lanekin laguntzeko.

Eta bestetik daude **Cáritas erakundearen kualifikazio baxua duten helduei sustapen sozioletikoa ematen dizkieten boluntarioak, gailu digitalak behar dituztenak** tailerrak diseinatzeko, aurrera eramateko eta horien jarraipena egiteko.

Sarien Epaimahaiak aintzat hartu du proiektuaren sen pedagogikoa. Ekimena, bestalde, joan den ikasturtean abiatu zen, pandemian zehar, eta gaur egun garrantzi handikoa den arazo baten balizko irtenbideak jorratzen ditu.

Bideotutorialak egiteko proiektua zuzenki lotuta dago, besteak beste, honako balio hauekin: giza eskubideen errespetua, justizia soziala, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna (bideoetan, arreta berezia jarri diote hizkuntzari, inklusioa izan zedin), konpromisoa eta ilusioa.

**Sariaren 3.300 euroak Cáritasi emango dizkiote, lanean jarraitu dezaten digitalizazioan eta arrakala digitalak bilbotarrengan duen inpaktua txikitzen.**

## **NORAI**

NORAI elkarte hezitzaile, humanizatzaile eta ekintzailearen ***Etorkizuna Musikatan*** da «**Bilbao Balioen Sariak**»-en saritutako ekimenetako bat.

Ibaiondoko Barrutiko auzoetan bizi diren zenbait kulturatako haur eta nerabeei zuzendutako proiektua da, helburu duena **gizarteratzea eta dinamizazio sozioedukatiboa bultzatzea musikaren bitartez; zehazkiago, haur-orkestrak sortuz.**

Ekimenak praktika musikal kolektiboa proposatzen du **pobreziaren, gizarte-bazterkeriaren eta zaurgarritasunaren aurka borrokatzeko tresna eraginkor gisa, eta kulturaren eta musika-ikaskuntza kolektiboaren ahalmena aldarrikatzen du, gizartea eraldatzeko bitarteko moduan.** Modu horretan, musika-prestakuntza tradizionalaren paradigmak hautsi, eta proiektuak musika hurbiltzen die haur guztiei (batez ere, egoera okerreanean dauden gizarte-sektoretakoei), doan eta aukera-berdintasunean.

Epaimahaiak nabarmendu du proiektuak «*lan ona egiten*» duela «*auzo-mailan*», eta oso positibotzat jo du musika bitarteko moduan erabiltzea. Gainera, azpimarratu dute ekimenak «*genero-ikuspegiarekin duen konpromisoa: neskak orkestran parte hartzea eta haren ordezkari izatera gonbidatzen ditu, mutilen maila berean edo gehiago*»; eta, hala, «*neskak gehiago ikusarazten eta gizartean aintzat hartuak izaten laguntzen du, neskak ahaldunduzen ditu (pertsonalki eta kolektiboki), genero-kontzientzia eraikitzea sustatzen du, eta parte-hartzaileen autoestimua eta autonomia areagotzen du*».

Proiektu horrek bat egiten du Bilboko Balioen Agiriaren 17 balioekin. Batez ere, honako hauekin: **justizia soziala, elkartasuna, aniztasuna, gizarteratzea, inklusioa eta parte-hartzea.**

**Sariaren 3.300 euroak erabiliko dituzte musika-tresnak erosteko eta kontzertu batera joateko, Musika Soziala Sareko beste entitate batzuekin.**

## **BALANTZEA**

«Bilbao Balioen Hiria Sariak» ekimenaren lau edizioetan, balioei lotutako 12 proiektu saritu dituzte —edizio bakoitzean, 3—.

**2018/2019 edizioan**, Askabide Elkartearen Mari Makeda laneratzeko proiektua, Artagan Ikastetxearen Conéctate teknologia berriena eta IMQ Igurco Zorrozoiti Eguneko zentroko Soñando Zorrozoiti izan ziren aintzatetsitako ekimenak.

Hurrengo edizioan, **2019/2020koan**, La Merced Kirol Elkartearen Bilboko Klub Bereziak eta Artxandako Mertzetarrak Kirol Kluba, Otxarkoagako Lanbide Eskolaren Otxarkoaga Modern Art Festival, eta Biscay Bay Startup Campusaren Start Up ekimena saritu zituzten. Gainera, edizio hartan aipamen berezia jaso zuten Sonia Polo Escobesek eta Sabina Melchor Larrazek.

lazko edizioan, **2020/2021ekoan**, honako proiektu hauek jaso zuten saria: Aldauri Fundazioaren proiektu bat, pandemia garaian herritar guztiei teknologia berriak erabiltzeko

aukera emateko helburua zuena; Zabalburu Ikastetxearen *La hora del té* proiektua, eta Jazz Cultural Theatre of Bilbaoren *Mi Botella Amiga del Planeta* ekimena.

Aurreko urteetako saridun horiei aurtengo hiru entitateak batu zaizkie.

## **BILBO BALIOEN HIRIA**

«**Bilbao Balioen Hiria Sariak**» [Bilbao Balioen Hiria](#) proiektuaren barruan datoz. Proiektu hori parte-hartze bidezko ekimen bat da, Bilboko Udalak sustatua, baina, hasiera-hasieratik, herritarrekin lankidetzan eraikia eta garatua. Bilbao Balioen Hiria proiektuaren helburua da uria ezaguna eta aitortua izatea ez bakarrik birgaitze, berreskuratze eta eraldatze ekonomikoagatik, baizik eta bere balioengatik ere bai. Helburua da gunee bat sortzea erakundeen, era guztietako entitateen, enpresen, hedabideen, talde politikoen eta herritarren artean analisia egiteko, hitz egiteko, hausnartzeko eta lankidetzan aritzeko.

Proiektu horren ondorioz, 2018ko martxoan Bilboko Balioen Agiria onartu zuen Udalbatzak, non datozen urteetan uria eta bilbotarren elkarbizitza egituratu behar duten 17 balioak identifikatu baitziren. Ildo horretan, joan den uztailan, Gobernu Batzordeak Balioen Agiria garatzeko Plana onetsi zuen, dokumentuan jasotako 17 balioak gauzatzeko ekintzak ezartzeko.

**Balioen Agiriari atxiki** nahi zaizkien norbanako edo erakundeek nahikoa dute [udal webgunean](#) edo [Bilbao Balioen Hiria](#)ren webgunean eskura daitekeen inprimaki erraza betetzea.

Agiriarekin bat egiten dutenek konpromisoa hartzen dute agiriaren eduki eta muinarekin bat datozen jarrerak eta jokabideak izateko eta sustatzeko. Agirian, bestalde, jasota daude bilbotarren ustez uriaren elkarbizitzaren ardatz izan behar duten 17 balioak: giza eskubideen errespetua, justizia soziala, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, elkartasuna, aniztasuna eta inklusioa, konpromisoa, ingurumen arloko jasagarritasuna, elkarbizitza, identitatea, ahalegina, erantzunkidetasuna, parte-hartzea, konfiantza, sormena, zintzotasuna, ilusioa eta osasuna.

## **SARE SOZIALAK:**

- **Bilbao Udala:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

## LA ASOCIACIÓN NORAI Y LOS CENTROS ESCOLARES BERRIO-OTXOA Y ARTXANDAPE, PREMIOS DE LA CUARTA EDICIÓN DEL CERTAMEN “BILBAO BALIOEN HIRIA SARIAK”

- La Asociación Educativa, Humanizadora, Emprendedora NORAI ha resultado premiada por su proyecto *Etorkizuna Musikatan*, basado en el fomento de la convivencia e integración de las y los niños y jóvenes del distrito de Ibaiondo, a través de la música.

- *Bideotutorialak* es la iniciativa ganadora del Colegio Berrio-Otxoa, su objetivo es minimizar la brecha digital existente, facilitando la formación on-line y acercando la tecnología a todas las personas.

- *Ohar Gaitezen* de la ikastola Artxandape es el tercer programa elegido por el Jurado. Pretende fomentar la corresponsabilidad, para que mujeres y hombres compartan equitativamente las obligaciones y cuidados.

- Un año más, el Ayuntamiento de Bilbao premia y reconoce públicamente el trabajo de entidades, que han desarrollado o están desarrollando iniciativas que fomentan y/o ponen en práctica alguno o varios de los valores contenidos en la [Carta de Valores de Bilbao](#).

(Bilbao, 27 de abril de 2022).- La asociación **NORAI**, el colegio **Berrio-Otxoa** y la ikastola **Artxandape** son las entidades premiadas en la cuarta edición del certamen “**Bilbao Balioen Sariak**”. Con estos premios, el Ayuntamiento bilbaino reconoce públicamente y pone en valor el trabajo y el compromiso de quienes desarrollan iniciativas que contribuyen a una mejor convivencia y fomentan alguno de los valores contenidos en la [Carta de Valores de Bilbao](#).

Los premios se han entregado esta tarde, en el Salón Árabe del Consistorio, en un acto presidido por el Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, quien ha estado acompañado por la Concejala de Atención y Participación Ciudadana e Internacional, **Oihane Agirregoitia**, y otros representantes de la Corporación Municipal.

En sus palabras el Alcalde Aburto ha destacado que cada uno de los proyectos es “*diferente y único*”, pero “*todos contribuyen a avanzar hacia una sociedad más justa y mejor*” y además ha subrayado que este año hay un elemento más que es común a los tres proyectos ganadores, **todos están protagonizados por niños, niñas o jóvenes**, “*es ilusionante ver cómo habéis trabajado juntos para mejorar la vida de las personas que os rodean. Sinceramente es un orgullo que estas iniciativas tan enriquecedoras para la sociedad en su conjunto sean fruto de la infancia y la juventud*”, les ha dicho el Alcalde a los y las premiadas.

### IKASTOLA ARTXANDAPE

La ikastola **Artxandape** ha sido premiada por su iniciativa **Ohar Gaitezen: hacia la Conciliación y corresponsabilidad desde la igualdad de género**. El grupo feminista **Eguzkimoreak**, liderado por alumnado del centro, ha organizado sesiones formativas

impartidas por una experta en igualdad de género para **desarrollar las competencias necesarias que les lleve a identificar y visualizar las desigualdades entre hombres y mujeres que actualmente siguen vigentes.**

Esta preparación les convierte en el grupo motor para extender los conocimientos adquiridos al resto de agentes educativos, para informar y sensibilizar al resto del alumnado.

El jurado ha apreciado el "*firme compromiso*" con el valor de la Igualdad de Género de este proyecto. **Los 3.300 euros del premio permitirán que el proyecto continúe con más acciones con el mismo objetivo.**

## **COLEGIO BERRIO-OTXOA**

Bajo el título **Bideotutorialak**, el **Colegio Berrio-Otxoa** ha desarrollado otra de las iniciativas premiadas de este año. En concreto, se trata de un trabajo del alumnado de 1º de Bachillerato en la asignatura de TIC, que ha elaborado diferentes video-tutoriales sobre la utilidad y manejo de aplicaciones, programas y plataformas informáticas con un fin social.

**El objetivo es minimizar la brecha digital existente, facilitando la formación on-line y acercando la tecnología a todas las personas.**

El proyecto se dirige a dos colectivos; por un lado, **familias en situación de vulnerabilidad social que participan en los proyectos de apoyo socioeducativo que desarrolla Cáritas**. Estas familias requieren conocer plataformas escolares de comunicación y trabajo para ayudar a sus hijos e hijas en el seguimiento escolar.

Y por otro, **al voluntariado de la misma entidad, Cáritas, que imparte talleres de Promoción socio-personal a personas adultas con baja cualificación y que necesite dotarse de herramientas digitales** para el diseño, la ejecución y seguimiento de estas talleres.

Las personas que componen el jurado de estos premios han valorado la orientación pedagógica del proyecto, que se inició el curso pasado, durante la pandemia, y que aborde las posibles soluciones a una problemática de especial interés en la actualidad.

La elaboración de los video-tutoriales está directamente relacionado, entre otros, con los valores de respeto a los Derechos Humanos, Justicia Social, Igualdad entre Hombres y Mujeres (se ha prestado especial atención al lenguaje de los videos para que sea inclusivo), Compromiso e ilusión.

**La dotación económica del premio, 3.300 euros, se donarán a Cáritas para que continúe con el trabajo de digitalización y minimización el impacto de la brecha digital en la población bilbaina.**

## NORAI

***Etorkizuna Musikatan*** de la asociación educativa, humanizadora, emprendedora NORAI es la tercera de las iniciativas premiadas en “**Bilbao Balioen Sariak**”.

Se trata de un proyecto dirigido a niños, niñas y adolescentes de culturas diversas residentes en barrios del distrito de Ibaiondo, que **pretende fomentar la integración y dinamización socio-educativa a través de la música, de la formación de orquestas infantiles.**

La iniciativa propone la práctica musical colectiva como herramienta **eficaz para luchar contra la pobreza, la exclusión social y la vulnerabilidad, reivindicando el poder de la cultura y el aprendizaje musical colectivo como herramienta de transformación social.** De esta manera, se rompen los paradigmas de la formación musical tradicional acercando la música de forma gratuita y en igualdad de oportunidades para todos los niños y niñas, sobre todo de los sectores sociales en situación más desfavorable.

El Jurado ha destacado que el proyecto “*realiza un buen trabajo a nivel de barrio*” y valora muy positivamente el uso de la música. Además, subraya “*el compromiso con la perspectiva de género, pues se anima a las chicas a participar y representar a la orquesta de igual manera o incluso más que los chicos, lo que incrementa su visibilidad y su reconocimiento social y contribuye a su empoderamiento personal y colectivo y al desarrollo de la conciencia de género, la autoestima y la autonomía de las participantes*”.

Este proyecto conecta con los 17 valores de la Carta de Valores de Bilbao, sobre todo con la **justicia social, la solidaridad, la diversidad e inclusión y la participación.**

**Los 3.300 euros del premio se destinarán a la adquisición de instrumentos y para los gastos de asistencia a un concierto junto con otras entidades de la Red Música Social.**

## BALANCE

En las cuatro ediciones del certamen “Bilbao Balioen Hiria Sariak” se han premiado 12 proyectos relacionados con los valores, 3 en cada una de las ediciones celebradas.

En la **edición 2018/2019**, las iniciativas reconocidas fueron el proyecto de inserción laboral Mari Makeda de la Asociación Askabide, el de nuevas tecnologías Conéctate del Colegio Artagan y Soñando Zorrozoiti del centro de Día IMQ Igurco Zorrozoiti.

En la siguiente edición, **2019/2020**, los premiados fueron Bilboko klub Bereziak de U.D la Merced y Artxandako Mertzetarrak Kirol Kluba, Otxarkoaga Modern Art Festiva, de la Escuela Profesional de Otxarkoaga y Start up Campus, de Biscay Bay Startup Campus. Además en esa edición tuvo dos menciones especiales: Sonia Polo Escobes y Sabina Melchor Larraz.

En la del año pasado, **2020/2021**, resultaron premiados los proyectos; facilitando y acercando el acceso a las nuevas tecnologías a toda la población en tiempos de pandemia

de la Fundación Aldauri, La hora del té en Bilbao, del colegio Zababuru y Mi Botella Amiga del Planeta de Jazz Cultural Theatre of Bilbao.

A los premiados en años anteriores se suman las tres entidades de este año.

## **BILBAO BALIOEN HIRIA**

Los premios “**Bilbao Balioen Hiria Sariak**” se enmarcan en el proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#), una iniciativa participativa, impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construida y desarrollada, desde un principio, en colaboración de la ciudadanía. Bilbao Balioen Hiria tiene como objetivo que la Villa sea conocida y reconocida no solo por su importante proceso de regeneración, recuperación y transformación económica y urbana, sino también por sus valores. Se trata de crear un espacio de análisis, dialogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades de toda índole, empresas, medios de comunicación, grupos políticos y ciudadanía en general.

Como resultado de este proyecto en marzo de 2018 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la Carta de Valores de Bilbao en la que se identifican los 17 valores que deben vertebrar la convivencia de la ciudadanía bilbaina y que deben guiar de la Villa en los próximos años. En esta línea, el pasado mes de julio, la Junta de Gobierno del Consistorio aprobó el Plan de Desarrollo de la Carta de Valores, para implementar acciones que materialicen los 17 valores del documento.

Toda persona o entidad que lo desee puede **adherirse a la Carta de Valores** rellenando un sencillo formulario online disponible tanto en la [página web del Consistorio](#) como en la de [Bilbao Balioen Hiria](#).

Quien se adhiera a esta Carta asume el compromiso de mantener, potenciar y promover actitudes y comportamientos acordes al espíritu y contenido de este documento, que plasma los 17 valores, que según las y los bilbainos, deben vertebrar la convivencia de la Villa, - respeto a los Derechos Humanos, justicia social, igualdad entre mujeres y hombres, solidaridad, diversidad e inclusión, compromiso, sostenibilidad medioambiental, convivencia, identidad, esfuerzo, corresponsabilidad, participación, confianza, creatividad, honestidad, ilusión y salud-.

## **REDES SOCIALES:**

- **Bilbao Udala:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)